

## **Covid-19 pandemiak ostalaritzan eragindako kalte ekonomikoei aurre egiteko, herritarrei bonuak saltzeko kanpainaren OINARRIAK**

### 1.- KANPAINAREN EZAUGARRIAK:

- Kanpainaren helburua honako hau da: Covid 19 pandemiaren osasun larrialdiak sortutako kalteak arintzen laguntzea; eta horretarako ostalaritzan kontsumitzeko bonuak sortu eta herritarrei saldu, udalerriko jatetxe eta tabernetan gastatu dezaten ostalaritzako sektoreari bultzada emanez.
- Kanpainaren onuradunak Eskoriatzako ostalariak.
- Bonuen erosleak: Eskoriatzan erroldatutako herritarrak, adinez nagusiak.
- Bonu bakoitzaren balioa 30 eurokoa izango da. 15 euro herritarrak ordainduta eta beste 15 euro Eskoriatzako Udalak (Udalak %50ko ekarpena egingo du 1/2).
- Bonuen ezaugarriak:
  - Zatikaturatuta: 5 euroko sei txarteltxotan.
  - Bonu bakoitzak identifikazio zenbaki bat du.
- Bonuaren materiala kartulinaren antzekoa i da, material, kolore edo testura berezi batekin egindakoa, eta zenbakituta..
- Guztira salgai jarriko den bonu kopurua 550 izango da.
- Kanpainak ekainetik abenduaren 31ra arte iraungo du.
- Udalaren aurrekontutik guztira ordainduko den diru laguntzaren zenbatekoa 8.250 euro izango da (550 x 15 euro). 05004804310001 "dirulaguntza merkataritza" aurrekontu partidaren kontura.

### 2.- KANPAINAREN FUNTZIONAMENDUA

2.1.- PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIO KANPAINA: Ostalaritzako bonuen kanpainaren inguruko informazioa helaraziko zaie bai ostalariei, baita herritarrei ere.

Kanpainan parte hartuko ez duten ostalariek, beraiek azaldu beharko diete bezeroei bonuak hartzen ez dituztela

2.2 BONUEN SALMENTA: Bonuak ekainetik aurrera egongo dira salgai. Ibarraundin. Astelehen eta ostiraletan 11:00-13:00 eta asteazkenetan 17:00-19:30.

Bonuak kreditu txartelarekin ordaindu beharko dira.



### **garapen jasangarria**

2021MDID0002

2.3. **BONUEN BANAKETA HERRITARREN ARTEAN:** Adinez nagusia den eskoriatzar bakoitzak (Eskoriatzan erroldatuta egon beharko da) bonu bat erosteko aukera izango du..

2.4. **BONUEN ERABILERA:** Herritarrek bonua erosi ondoren, salbuetsita ez dauden Eskoriatzan kokatutako taberna eta jatetxeetan gastatzeko aukera izango dute. Jarduera horietako arduradunek, jasotako bonuari erosketa tiketa atxikitu beharko diote. Ondoren, likidazioa egiteko inprimakia bete. Bukatzeko, likidazioaren nprimakia, bonuekin eta fakturekin batera, Eskoriatzako Udal erregistroan aurkeztu beharko du gutun azal itxi batean.

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da hamabost egunean behin.

<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABL9B2.m0PG">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABL9B2.m0PG</a>
------------	---